

Woody eta Juanmi



JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Woody Allen Donostiara etortzeko omen da filma errodatzera. Berri on-ona dela esan du alkateak. Gure artean, baina, aspaldi izandakoa da. Orain berrogeita piku urte ikastetxe batean irakasle nengoela, jada gure artean zegoen artista: Allenen obrak irakurtzen genituen eta antzeztan gazteekin, filmak ere ikusten genituen eta *zine forum* apalak antolatzen. Ez ginen bakarrak izango.

Garrantzi neurrigabea ematen zaio artista baten agerpen pertsonalari, ikusteko irrikaz direnek haren ekarpen artistikoa inondik ere ez ezagutu arren. Politikarien kasuan areago: sarri morroiek prestatutako txostena (eskuarki Wikipediatik hartuta) azken orduan irakurtzen dute datorren idazle, jotzaile, margolari edo eskultorea nor den eta zein meritu dituen ezagutzeko. Ez dira bakarrak.

Woodyri leporatu zitzaizkion sexu abusu salaketen inguruan ezin dut iritzi ziertorik eman. Interes handiak eta informazio gutxi baitaude tartean. Haatik sutsuak dira batera zein bestera hautua egiten dutenak. Alkateak ez du horretaz zipitzik esan. Ez da bakarra.

Woody Allen Donostiara etortzeko omen da filma errodatzera. Berri on-ona dela esan du alkateak.

Juan Miguel Gutiérrez, *Juanmi* edo *Guti*, euskal zinemagilea, aldiz, joan da Donostiatik eta mundutik.

Inongo agintarik ez aipatuagatik, berri txarra da

Woody idazle hobia izan da zinegilea baino. *Cómo acabar de una vez por todas con la cultura* (gaztelaniaz irakurtzen genuen noski) liburua, bereziki kilikagarri iruditzen zitzaien ikasleei. Negozioaren kulturari edo kulturaren negozioari buruz ez zuen ezer aipatzen. Horrekin ez zegoen bukatu beharrik. Donostia –Martxak besterik badio ere, honetan ez da

munduan bakarra– egun negoziozaleen eskuetan dago. Hauen propagandarako on-ona da orain Woody *in person* etortzea hiria pantaila handiaz ere saltzeko.

* * *

Juan Miguel Gutiérrez, *Juanmi* edo *Guti*, euskal zinemagilea, aldiz, joan egin da Donostiatik eta mundutik. Inongo agintarik ez aipatuagatik, berri txarra da, zaplasteko krudela. Juanmik egin-dako lan artistikoak gure artean dau-de aspalditik, baina gehiago eskaintzea zuen gogoan eta bihotz asmoetan. Ez zuen kulturarekin “amaitu” nahi, benetako kultura sustatu baizik.

Kultura molde zehatza zuen aukuratua: elkarren artean sortutako sare ikusezin sentigarria. Pobreak, baztertuak, ezinean, hedabide handien itzalean geratzen zirenak, ondo begiratzen eta erakusten saiatzen zen, ulertzeko, maitatzeko eta haiekin bat egiteko era egokiena zelakoan. Ez da horrela aritzen den artista bakarra. Hemen zen, *in person* gure artean, ez zuen inondik etorri behar. Baina joan egin da. Ez adiorik. ●



**Bozka ezazu
blogik gustokoena**
Otsailaren 25etik
martxoaren 24a bitarte

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera



KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus